

Hezkuntza erdi presentzialeko eskaintza azaltzeko informazio saioak egingo dira larunbatean Aretxabaletako campusean

2015/05/18

Maiatzaren 23an, larunbata, hezkuntza erdi presentzialeko eskaintza azaltzeko informazio saioak egingo dute **Aretxabaletako campusean**. Goizeko **11:00etan** hasiko diren informazio saioetan, aurkeztuko dute Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateak hezkuntza arloa dituen ikastaro eta kurtso erdi presentzialak.

Hiru dira fakultateak eskaintzen dituen ikastaroak modalitate erdi presentzialean:

1. Irakasleentzako gradurako egokitze kurtsoa. Ikastaroa honekin eguneratzen da irakasletzako diplomatura Hezkuntza gradu berrira.
2. Hezkuntzan beste gradu bat edo beste aipamen bat. Kurtso hauek daude zuzenduta hezkuntza gradu bat dutenenei eta gradu beraren beste espezializazioa egin nahi dutenei edo hezkuntzako beste gradu bat egin nahi duten guztiei.
3. Haur eta Lehen hezkuntza graduak online. Aurretik beste titulazio bat daukatenentzat eta Hezkuntza gradu bat erabat *online* egin nahi dutenentzat zuzendutako eskaintza.

Informazio saioa irekiak dira baina interesatuek, **aldez aurretik, izena eman beharko dute** www.mondragon.edu/profesionalak webgunean.



Informazio saioa 11:00etan hasiko da.